

EXCERPTA

2. zenbakia

1986-iraila

gaiak

orrialdeak

Arkiloko..... 25-28

Definitiones, etymologiae, explicationes

• Sancti Augustini scriptis depromptae... 29-34

Sancti Damasi epigrammata..... 35-38

Katulo..... 39-40

Antxinakoen ohiturak Aita Santu Leon

Handiaren Sermoietan aztertutak.....41-48



Jon gotzon etxebarría
Gernika

ARKILOKO
(650 K.a.)



Beharrizanak bultzaturik Tassos uhartera joan zen Paros bere sorterritik. Gudu-aldi batzutan parte hartu eta azkenean Naxos-en aurkako ekitaldian hil zen.

Bere buruarekikoak sarri ageri dira bere olerkietan. Antxinakoek poeta handitzat zeukaten. Eguzki-ellipse batek Jupiter ahalguztidunaren handitasuna mirestera eramane zuen, simpleziaz.

60 Κήδεα μὲν στονόεντα, Περικλεες, οὔτε τις ἀστῶν
μεμφόμενος θαλίης τέρπεται οὐδὲ πόλις·
τοίους γὰρ κατὰ κύμα πολυφλοίσβοιο θαλάσσης
ἔκλυσεν· οἰδαλέους δ' ἀμφ' ὀδύνησ' ἔχουμεν
πνεύμονας. ἀλλὰ θεοὶ γὰρ ἀνηκέστοισι κακοῖσιν, 5
ὦ φίλ', ἐπὶ κρατερὴν τλημοσύνην ἔθεσαν
φάρμακον. ἄλλοτὲ τ' ἄλλος ἔχει τάδε· νῦν μὲν ἐς ἡμέας
ἐτράπεθ', αἱματόεν δ' ἔλκος ἀναστένομεν,
ἑξαῦτις δ' ἐτέρους ἐπαμείψεται. ἀλλὰ τάχιστα
τλήτε γυναικίον πένθος ἀπώσάμενοι. 10

(7 D)

Perikles, hiletak jotzen norbait ari den bitartean, ez alaitasunaz gozatuko da bera, ez hiria. Halakoak itsaso durunditsuaren uhinek garbitu zituzten. Hagatik min dugu gure barneetan. Jainkoak, baina, itzuri ezinezko kalteentzat osakala eman ziguten, adiskide, adorea eta eramapena. Batean bata, bestean bestea dagoke horrela; orain, aldiz, guri suertatu zaigu eta gure zauriaren odolari negar dagio. Laster beste batzu joko ditu. Eutsi gogor, bertotik andre-en negarra alde batera utzita.

Πάντα Τύχη και Μοῖρα, Περικλεες, ἀνδρὶ δίδωσιν.

(8 D)

Halabeharrak eta Patuak, Perikles, gizonei dena ematen.

Αἰσιμῶδη, δήμου μὲν ἐπίρρησι(μ) μελεδαίνων
οὐδεις ἂν μάλα πόλλ' ἡμερόεντα πάθοι.

(9 D)

Jendearen esamesez arduratzen denak ez duke atsegin handirik luzaroan.

οὔτε τι γὰρ κλαίων ἰήσομαι οὔτε κάκιον
θήσω τερπωλᾶς καὶ θαλίας ἐφέπων.

(10 D)

Ene mina ez dut sendatuko negarrez, ez areagotuko atsegin eta jaien bidez.

Γλαῦκ', ἐπικούρος ἀνὴρ τόσσον φίλος, ἔσκε μάχηται.

(13 D)

Glauko, gizon mertzenaria gudaketan ari den bitartean ardiskidea dateke.

πάντα πόνος τεύχει θνητοῖς μελέτη τε βροτεῖη.

(14 D)

Gizonei dena dakarkiete lanak eta giza-ardurak.

Ῥ]ήσει τῆ[ι]δ' ἔπειτ' ἡμειθόμ[ην]
γύνα[ι], φάτιν μὲν τὴν πρὸς ἀνθρώπω[ν] κακὴν
μὴ τετραμήνης μηδέν' ἀμφὶ δ' εὐφ[ρονα]
ἔμοι μελήσει' [θ]υμὸν Ἰ[α]ον τίθει.

(... ..)

Nik orduan honetara jardetsi nion: andrea, ez estutu gizonen mihi gailz toagatik; alderdi onetik hartuko ditut nik.

Τοῖς θεοῖς ἦτ' εἰθεῖ' ἅπαντ' ἀπολλάκις μὲν ἕκ κακῶν
ἀνδρας ὀρθοῦσιν μελαίνῃ κειμένους ἐπὶ χθονί,
πολλάκις δ' ἀνατρέπουσι καὶ μάλ' εὐ βεβηκότας
ὑπτίους κ(λ)ίνουσ' ἔπειτα πολλὰ γίγνεται κακά
καὶ βίου χρήμη πλανᾶται καὶ νόου παρήγορος.

(58 D)

Jarri uste osoa jainkoengan; askotan lur ilunean dauntzan gizonak gaitzetik ateratzen dituzte; beste askotan ongi zeudenak eraso egiten dituzte, ahoz gora eraitsirik. Orduan kalte handiak gertatzen zaizkio gizonari eta alderrai dabil, bizi-nahi eta gogorik ezaz.

Οὐ τις αἰδοῖος μετ' ἀστῶν (οὐδὲ) περίφημος θανάων
γίγνεται· χάριν δὲ μᾶλλον τοῦ ζοοῦ διώκομεν
(οἱ) ζοοί· κάκιστα δ' αἰεὶ τῶι θανόντι γίγνεται.

(64 D)

Hilez gero inor ez da agurgarri, ez entzutetsu, auzakideen artean; bizirik garenean bizien onospena bilatu ohi dugu. Hildakoari beti txarra gertatzen zaio.

οὐ γὰρ ἐσθλά κατθανοῦσι κερτομεῖν ἐπ' ἀνδράσιν.

(65 D)

ez da gizon leialarena hil direnak iraintzea.

Θυμέ, θύμ' ἀμηχάνοισι κήδεσιν κυκώμενε,
 τάνάδου, δυσμενῶν δ' ἀλέξει προσβαλὼν ἐναντίον
 στέρνον, τὲν δοκοῖσιν ἐχθρῶντ' πλησίον κατασταθεῖς
 ἀσφαλῶς· καὶ μήτε νικῶν ἀμφάδην ἀγάλλο
 μηδὲ νικηθεὶς ἐν οἴκῳ κάταπεσῶν δδύρεο.
 ἀλλὰ χαρτοῖσιν τε χαίρε καὶ κακοῖσιν ἀσχάλα
 μὴ λήν· γίγνωσκε δ' οἷος ῥυσμὸς ἀνθρώποις ἔχει.

(67a D)

Ene gogoa, tristura latzez larriturik, ekin aurrez etsaiari.
 Eman arpegi sendoro aurkakoei. Garaile ateraz gero ez zai-
 tez harro agerian, garaitua izanez gero ez negarrik egin
 etxean lur jota. Atsegin-**ez** beharretan **ez** poztu **edo** **nindu**
 larregi. Badakizu nolako gorabeherak dituen gizonak.

Τοῖος ἀνθρώποισι θυμός, Γλαῦκε, Λεπτίνεω πάι,
 γίγνεται θνητοῖσ', ὀκοῖν Ζεὺς ἐφ' ἡμέρην ἄγχι,
 καὶ φρονεῦσι τοῖ, ὀκοῖσ' ἐγκυρέωσιν ἔργμασιν.

(68 D)

Glauko, Leptineo-ren seme hori, eguneango gogoa nolakoa eman
 Zeus-ek eta halakoxea ohi dute gizonak, aldartea, berriz, no-
 lako lanbidetan dabiltzan.

ΥΜΝΟΣ ΕΙΣ ΗΡΑΚΛΕΑ ΚΑΙ ΙΟΛΑΟΝ ΗΡΚΟΥΛΗΣ ΕΤΑ ΙΟΛΑΟ-ri ΗΜΝΟΔ

Τήνελλα
 ὦ καλλίνικε χαῖρ' ἀναξ' Ἡράκλεες,
 τήνελλα καλλίνικε
 αὐτός τε καὶ Ἴολαος, αἰχημητὰ δύο.
 τήνελλα
 ὦ καλλίνικε χαῖρ' ἀναξ' Ἡράκλεες.

Gora, garaile goren hori!
 Agur Herkules buruzagi;
 gora garaile handi biei,
 zeu eta Iolao gudariei.
 Gora garaile bikainari,
 agur Herkules buruari!

11 **AINGERU-GURTZA**: "Addidit autem et culturam Angelorum,
 vel sicut vestri codices habent, religionem Angelorum,
 quae graece θρησκεία dicitur." (Epistola 149, 27)

Gainera, Aingeruen gurtza esan zuen, edo eta zuen kodize-
 ek dakartenez, Aingeruen erlijioa, grekoz θρησκεία deritza-
 na.

θρησκεία : jainkoaren gurtza; erlijio-zeremonia (Diccionario
 griego-español; Florencio I. Sebastián Yarza; Barcelona, Ed.
 Sopena, 1954)

12 **ALDI**: "Tunc audierunt, Nemo potest cognoscere tempora,
 quae Pater posuit in sua potestate, id est χρόνος ἢ
 καιρός : quod si latine diceretur, tempora aut opportuni-
 tates, nec sic quod dictum est, esset expressum; quia sive
 opportuna, sive importuna sint tempora, καιροὶ dicuntur."
 (Epistola 197, 3)

Orduan entzun zuten: inork ezin ditzake ezagutu Aitak be-
 re eskumenean jarri dituen aldiak. Hau da, garaiak eta auker-
 ak. Latinez garaiak edo aukerak esan balitz, ez litzateke
 argi esanda. Garaiak onak nahiz txarrak aukerak
 esaten dira eta.

ΤΕΠΟΡΑ	{	eguraldi	}	χρόνος
		aldi		
	{	ero	}	καιρός
		asti		
	{	garai	}	aukerak
		sasoi		
	{	muçon	}	

13 **ALDERATU**:"Parabola dicitur, quando datur similitudo de aliquo, quando de illo male dicitur. Sic ille, verbi gratia, pereat quomodo ille, parabola est; id est comparatio et similitudo maledicti. Factus ergo sum illis in parabolam." (Enarrationes in Psalmos, 68, 1-15)

Norbaitekin alderatzen bada, hargatik gaizki esaten denean, orduantxe dugu parabola bat. Esaterako, halakoa galdadila beste hura bezalaxe, parabola duzu; hau da, mada-rikatuarekin alderatu eta antzekotu egiten da. Parabolan jarri naute (Parabolagai izan natzaie)

Guretzat parabolak beste zentzun bat hartu du honez gero: "Egia garrantzitsu bat adierazten duen alegoria" (Fernando Lázaro Carreter; "Diccionario de Términos Filológicos"; Ed. Gredos)

14 **ALEGORIA**:"Sicut enim σχήματα usitatus dicimus quam figuras, ita usitatus dicimus τρόπος quam modos. Singulorum autem modorum sive troporum nomina, ut singula singulis referantur, difficilimum est et insolentissimum latine enuntiare. Unde quidam interpretes nostri, quod ait Apostolus: Quae sunt in allegoria, nolentes graecum vocabulum ponere, circumloquendo interpretati sunt dicentes: Quae sunt aliud ex alio significantia. Huius autem tropi, id est allegoriae, plures sunt species, in quibus est etiam quod dicimus aenigma.

(De Trinitate, Lib. XV, IX-15)

esjemata (grekoz) irudiak baino sarriago esaten dugun bezalaxe, tropos (grekoz) eresarriago esaten dugu moduak baino. Modu eta tropo guztien izenak banan banan latinez esateak badu bere ausardia eta zailtasuna. Hori dela eta, gure interprete batzuk harako Apostoluarena: allegoriaz daudenak, alegia, grekozko hitza ipini nahi ez eta itzulinguruka eman zuten: gauza baten bidez beste bax adierazi nahi dutenak. Tropo honen, alegoriaren, mota asko dago; horietako bat enigma esaten duguna.

- σχήματα : irudia.
- figura: idem, latinez.
- tropo: berba bat normalean ez duen zentzunean erabiltzea (Lázaro Carreter; Diccionario de Términos Filológicos; Edit. Gredos)
- Modu: idem, latinez.
- Alegoria: irudi poetikoetan, alderdi errearen eta alderdi irudimenezkoaren artean egokiera duen jokabide erretorikoa.
Bulko abstraktu bat adierazten duten irudiak. (Lázaro Carreter; in eodem loco)
- enigma: Kintiliano eta Kikero-ren idazkietan, alegoria ilun samarra.

Arazo berdintsua izan du eta du euskarak erdaretatik hitzekin, batez ere gaztelaniazkoekin egunero begi-bellarrietatik sartzen zaizkigulako, eta zientzia arloan behar ditugun hitz teknikoekin. Batez ere goizetik gauera euskaraztu behar larri honetan: garbizaletasuna-garbizalekeria, nordoileria, erderakadak...

Idazleak "erdal" hitzaren beldur ziren (gara, oraindik). Ezin guztiz baztertuz... soluziorik ez den soluzio truko asko dago. Maiz estiloaren kaltetan. Hona hemen batzuek azpimarra faltsoak... komatxoak... edo batek soluzionatzen duena... parentesia... erdaraz alegia...

(Joxe Azurmendi; Zer dugu Orixe-ren kontra; Jakin liburua sorta, 1976; 119-120-121. orrialdeetan)

San Agustin-ek aipatu arazo horrekin zuzen zuzen alderantzekoa dugu beste atal hau:

2.2. Garbitasun iluna, iheskeria, zehaztasun falta.

Hizkuntza batek edozer gauza adierazteko gauza izan behar du.

Orixek bazekien hori... Teologiaz eta filosofiaz, hizkuntza xeha-xehatuan ez baino terminologia teknikoak idazten zenbat saiatu zitzaigun... Orixek izugarritzko aurrerapena eginaraziz euskarari. Baina ez zuen guztiz iritsi burua iraganaldi astunaren menpetik askatzea. Gauzak nolabait adieraztea ez bait da aski... Hizkuntza teknikoak, lehen-lehenik zehatza eta zehazkiro mugatua izan behar du eta praktikoa...

Concepto esateko buruan ernea erabiltzea (Aitokizunak) ez zaigu gogobeteko iruditzen...

(idem, ibidem, 123 eta 126. orrialdeetan)

15 **ALLELUIA** : "Nostis enim quia alleluia latine dicitur: Laudate Deum". (Sermo 255, 1)

Badakizue alleluia latinez "goratu Jauna" dela.

Alleluia (aleluya): hebreoz hallelu Yah; goretzi Yavé. (F. Corripio; "Diccionario etimológico general de la lengua castellana; Bruguera, 1973)

16 **ANANIAS** : "Eta Annanias interpretatur Ovis". (Sermo, 279, 2)

Ananias-ek Ardia esan gura du

"Anani zeritzan norbaitek, bere emazte Sapir'ekin itunduta, landa saldu... (Actus Apostolorum; Olabide, Itun Berrria; 5, 1)

17 **ANDRE** : "Quamquam hoc ita posuerit Apostolus, ut falli non debuerint; quia neque mulierem tantummodo ait, sed sororem mulierem, neque ducendi sed circumducendi. Verumtamen alios interpretes non fese illit haec ambiguitas, et mulierem non uxorem interpretati sunt." (De opere Monachorum, IV, 5)

Apostoluak bai hola ipini zuen, oker uler ez zezaten: ez bait zuen esan andrea bakarrik, baizik eta andre-arreba, eta ez eman eramanez baizik. Esamolde bikoitz honek ez zituen nahasi beste adierazle batzuek eta andrea ulertu zuten, andrazkoa, ez emaztea.

Du Gendi/circumducendi; bikoiztasun hori ulertzeko, gogora ezazu latinez "uxorem DUCERE" (gizonezkoa) ezkontzea zela; andrazkoa ezkontzea, NUBO. Horregatik, ducendi circumducendi (andrea) aurkako hoiak nolabait adierazteko EMAN/ERAMAN euskaraztu dut pasartea.

Argi dago gure SERORA, eliz-gauzen ardura hartzen zuenak latinezko SOROR-etik hartu duela azalezko era eta baita mamina edo zegokion lanbidea ere bai, idaztune horretan ederki ikusten denez.

18 **ANDRAZKOA** : "Misit Deus filium suum, factum ex muliere, id est ex femina; indiscrete enim vocabant hoc Antiqui." (Enarrationes in Psalmos, 31, II-17)

Jaungoikoak bere Semea bidali zuen, andrazkoagandik sortua, hau da, emakumeagandikoa. Antxinakoek bata zein bestea berdin esaten zuten eta.

Euskaraz ere berdintsu erabiltzen dira honako hauek:

Andra (Bo), andre (AN, BN, G, L, S) : señora.

Emakuma (Bo), emakume (AN-b, B, G, L, R) : mujer en general.

Emakumezko (G), hembra en general.

Emazte (BN-s) 2º : mujer.

Emazteki (AN-est, BNc, L, R, S) : mujer.

Andera (B, arc) señora.

(Azkue, Diccionario V.E.F.)

Andera : 1º, dame

(Lhande, Dictionnaire Basque-Français)

Andrazko-an Azkue-k hauxe dio : 1º (B-m) sexo femenino

2º (B-l) abundacia de mujeres = ásase en admiraciones.

Badakigu, ordea, Bizkaian, emakume legez erabiltzen dela. Eta ohizko "hembra" ahantzi gabe.

(jarraitzeko)

Laugarren gizaldiko Aita Santu ospetsuenetariko bat : 366-384. urteetan. Idazki laburrak idatzi zituen, epigramata, alegia. Batzu hilobietan jartzeko, martirien omenez; beste batzu luzeagoak euron handitasunak goraiatzeko. Jeronimo deunak esanda (Epist. 22, 22) birjintasunari buruz hitz lauz ere idatzi zuela badakigu. Halere, idazki labur eta olerkiak izan ezik, ez dugu harenik ezer gordetzen, eskutitz batzu barruan hartuta.

Furio Dionisio Filokalo-k esku ederrez eta ardura handiz jarri zituen neurtitzok martirien hilobi-harrietan.

Olerki-gaia sarriegi beti bat erabiltzen du. Oldozmenak ere ez dira hain sa konak. Hala eta guzti ere, esaera erraza eta maitatia darabil. Olermenez ez bada ere, barru zintzoz eta borondate xaloz atsegingarri zaigu. Horrez gainera arkeologo eta historialarientzat oso jakingarria da, orduko pertsonen eta jazokunen berri ematen bait zaigu egin zituen idazkietan. Itzulitako epigramaton koka-lekua :

- 1 Via Ostiensis-ko Komodila-ren hilerrian, santuen kriptan.
- 2 Via Ardeatina-ko Domitila-ren hilerrian, martirion basilikan.
- 3 San Lorentzo-ren basilikan.
- 4 Via Salaria-n.
- 5 Via Salaria Berrian, Priszila-ren hilerrian.

O semel atque iterum vero de nomine Felix,
 qui intemerata fide contempto principe mundi
 confessus Christum caelestis regna petisti.
 O vere pretiosa fides, cognoscite, fratris
 qua ad caelum victor pariter properavit Adactus.
 Pesbyter his Verus Damaso rectore iubente
 composuit tumulum sanctorum limina adornans.

1 Peli, egiazko izenez hamaika
 aldiz zoriontsu, siñesmen sendoaz
 ludi-nagusia ezetsiz zeruko
 herriratu zara Kristo aitortuaz.

Anaian siñesmen bikaina ikusi,
 beronek eroan bait zuen zerura
 zuzenkiro baita Adaukto be, arin,
 garaile izateko harekin batera.

Hementxe, Damaso Aita Santuaren
 agindua betez, Bero apaizak deun
 biei hilobi bat egokitu die
 euron etzangua ipiniaz txukun.

Latinezko izena felix adjetibotik eratorria. Guk Pe-
 li edo, euskaraz esatean galdu dugu esangura hori.
 Hitzez hitz Zorion edo izango litzateke (holakoa ba-
 dabil gure euskaldunen artean), neskatilarena Zoru-
 ne edo Zorione erabiltzen dutenen erara esanda.

semel atque iterum: behin eta berriro; hamaika aldiz.
 semel=behin atque=eta iterum=berriro
 semel atque iterum=behin eta berriro.

Peli eta Adaukto Diokleziano eta Maximiano agintari-
 en aldiari martiri-abarra hartutakoak

Militiae nomen dederant saevumque gerebant
 officium pariter spectantes iussa tyranni,
 praecceptis pulsante metu servare parati.
 Mira fides rerum: subito posuere furorem,
 conversi fugiunt, duois impia castra relinquunt,
 prociunt clipeos faleras telaque oruenta,
 confessi gaudent Christi portare triumphos.
 Credite per Damasum, possit quid gloria Christi.

2 Gudaritzan euren izenak emanda
 bait zeuden, lanbide gogorrean ari
 ziren, buruzagi-agindua zain,
 beldurrarren haren esanetara adi.

Siñesmen bikaina: bat-batean kendu
 herabea; iheska, agintariaren
 txosna galgarriak, oskol-edergailu
 eta azkon latzak dituzte itxiten.

Aitor eginda poz-pozik dagozkizu,
 eskuan Kristo-ren garaipen-abarra
 badaroela ta. Damaso-ri siñets
 Kristo-ren aintzak baduela indarra.

Akileo dounaren marti-
 rioaren irudi-marraskiak.
 Domitila-ren hilerrian.

"La Tumba de San Pedro
 y las catacumbas roma-
 nas".
 239. orrialdea.

B.A.C., Madrid, MCMLIV.



3 Verbera carnificis, flammis, tormenta, catenas
vincere Laurentii sola fides potuit.
Haec Damasus cumulat supplex altaria donis
martyris egregii suspiciens meritum.

Borreru-zigorkadak, gar, neke, kateak,
Laurentzi-n sinesmenak garaitu zituen.
Damaso-k, apal, mahai hau emaitzez bete,
martiri bikainaren lana ederresten,

4 Martyris hic Mauri tumulus pia membra retentat,
quem Damasus rector longo post tempore plebis
ornavit supplex, cultu meliore decorans
insontem puerum, cui poena nulla defecit.

Hilobi hontan Mauro martirian soina
datza. Damaso jaunak herritar-eskeriz,
azkenik, apaindu du hainbat oinaze ikus
zituen umetxoa, jalera gurgarriz.

cui defecit=peitu zaio; quem defecit=huts egin
dio

5 Cultores Domini Felix pariterque Philippus
hinc virtute pares contempto principe mundi
aeternam petiere domum regnaque piorum,
sanguine quod proprio Christi meruere coronas.
His Damasus supplex voluit sua reddere vota.

Peli-Pelipe, Jainko-gurtzaille
biak, onbidez berdintsu,
lur-nagusia ezetsiaz goi-
etxera ta zoriontsu-
herrira heldu ziren, odolez
Kristo-ren koroiak lortu
zituztelako. Damaso-k, apal,
bere opak jartzen ditu.

KATULO

V

Vivamus, mea Lesbia, atque amemus,
rumoresque senum severiorum
omnes unius aestimemus assis.
Soles occidere et redire possunt:
nobis, cum semel occidit brevis lux,
nox est perpetua una dormienda.
Da mi basia mille, deinde centum,
dein mille altera, dein secunda centum,
deinde usque altera mille, deinde centum,
dein, cum milia multa fecerimus,
conturbabimus illa, ne sciamus,
aut nequis malus invidere possit,
cum tantum sciat esse basiorum.

V

Bizi gaitezen, ene Lesbia,
 maitatuz eta agure
 garratzen erran-merranak, denak
 jo itzazu hutsaren pare.
 Eguzkia badoa, badator,
 Guk gau batez betiere
 lo, argi labur hau galduz gero,
 gura ez badugu ere.

Eman musuak, mila, ohunka,
 berriz mila eta beste
 ehun; berriro mila-ehundaz,
 milaka musu berrizte!
 milaka asko egin ondoren
 nahas ditzagun, ezuste,
 inor bekaitz ez dadin, musuak
 direla eta hainbeste!

ANTXINAKOEN OHITURAK AITA SANTU LEON

HANDIAREN SERMOIETAN AZTERTUAK (440 n.o.)

(Erabilitako liburuak: "Leon Le Grand, Sermons"; Sources
 Chrétiennes, Paris; 4 tomo, 1964, 1969, 1961, 1973)

1 "quibus haec dies solemnitatis nostrae, non tam de na-
 tivitate Christi, quam de novi, ut dicunt, solis ortu ho-
 norabilis videatur. Quorum corda vastis tenebris obvolu-
 ta, et ab omni incremento verae lucis aliena sunt; tra-
 huntur enim adhuc stultissimis gentilitatis erroribus,
 et quia supra id quod carnali intuentur aspectu, neque-
 unt aciem mentis erigere, ministra mundi luminaria divi-
 no honore venerantur." (In nativitate Domini Sermo II,
 1. tomoa, 90-2. orrialdeak)

haientzat, gure jai handi honen egunari ospea, Kristoren
 jaiotzarengatik baino gehiago, diotenez, eguzki barria-
 ren sortzeagatik datorkio, antza. Horrelakoen bihotzak
 ilunpetan zeharo galduak, egiatzko argiaren mesede-izpi-
 rik gabekoak. Oraindino sinesgabeen eritzi galgarriek
 darabiltzate eta gorputzeko begiek dakusatenaz handi-
 koetara ezin dute adimen-indarririk jaso eta hor dabil-
 tza munduaren lagungarri diren argi horiet jainko-gur-
 tza emanaz.

Genesiaren liburuak dioenez (1,14) ortzeko izarrak aldi-
 ak bereizteko eta neurtzeko ipini zituen Jaungoikoak.

Elizak, ez bairik gabe, Kristo Sol Justitiae, paganoen Sol Invictus—en orde z ipini nahi zuen (azkenengo hau Enperadorearen kultoarekin nahasia). Paganismotik zetoztenen-tzat Sol novus, Kristo edo ortzean gora doan eguzkia izan zitekeen.

San Agusti-ek zioen: "Ospa dezagun egun hau, ez sinetsgabeek bezala eguzki hau dela eta, baizik eta eguzki hau egin duenagatik." ("Habeamus solemnem istum diem, non si cut infideles propter hunc solem, sed propter eum qui fecit hunc solem"; Sermo CXC, I)

Gogora dezagun euskaldunen sineste zaharra:

En algunos pueblos le saludan diciendo AGUR 'adiós', cuando está en el ocaso. En la región de Vergara le dicen: *Eguzki amandrea badoia bere amangana...* 'la abuela Sol va hacia su madre'..., dando a entender que el astro del día se retira al seno de la Tierra. El Sol es considerado, por tanto, como hija de la Tierra.

Además de sus propiedades naturales, el Sol posee la virtud de ahuyentar a los espíritus malignos que de noche ejercen su poder en el mundo.

Creencias y ritos solsticiales.—Dado el carácter sagrado del sol dentro del mundo conceptual del vasco, no es extraño que muchas creencias y costumbres de la mitología solar indoeuropea se hayan asociado a la idea y al vocablo con que el astro del día es expresado en el país vasco.

J.M. de Barandiaran
"Mitología Vasca"
Minotauro, Madrid; 1960
110-116. orrialdeak

Círculos, suásticas, flor de cardo y otros símbolos.—En los monumentos del arte popular vasco son frecuentes ciertos signos que parecen representar el Sol y que probablemente tuvieron su origen en el culto solar: signos en forma de círculo simple, círculos concéntricos, ruedas de radios rectilíneos y curvos, estrellas pentagonales o pentalfas, suásticas, signos ovifilos, rosetones, etc.

Consideraciones basadas en la mitología solar debieron de influir en la génesis de la costumbre, perpetuada hasta nuestros días, de orientar los edificios de suerte que la fachada principal mirase al Este, costumbre cuyas huellas se ven todavía en las casas antiguas de Sara, de Atáun y otras regiones. Las chozas pastoriles tienen la misma orientación en muchas majadas, y en Atáun hemos oído decir que esto es más saludable para el pastor.

En las sepulturas medievales la orientación E.-W. (la cabeza en el lado occidental y los pies en el oriental) es corriente. Y en los dólmenes eneolíticos hallamos la misma costumbre, que aquí debió de responder a las mismas creencias y mitos solares que en otros países (37).

2

"Illa generatur impietas, ut sol in inchoatione diurnae lucis exurgens a quibusdam insipientioribus de locis eminentioribus adoretur; quod nonnulli etiam Christiani adeo se religiose facere putant, ut priusquam ad beati Petri apostoli basilicam, quae uni Deo vivo et vero est dedicata, perveniant, superatis gradibus quibus ad suggestum areae superioris ascenditur, converso corpore ad nascentem se solem reflectant, et curvatis cervicibus, in honorem se splendidi orbis inclinent." (In nativitate Domini sermo VII; 157. orrialdean)

(hurrengo orrialdean era honetara darrai: Jaungoikoa benetan gurtzen baduzue ere, argi hori baino gehiago, halere ez egin holakorik; federa etorri berriak ez na hasteko, haientzako eguzkiarekiko jarrera horrek beste esangura bat zuen eta)

Harako uste okerra dator hortik: egun argia hastera-koan eguzki irten berria buru gitxiko batzuek leku garaietatik gurtzen dute. Eta badaude kristau batzue re hori erlijio-zurrian egiten dutenak: Jaungoiko egi azko, bizi, bakarrari eskainita dagoen Jondone Petriren basilikara baino lehen, gorengo alderdira heltzen diren harmailak igo eta eguzki sortu berriaren alde- ra bueltatzen dira, buru makur, borobil distiratsuaren ohorez, apalki.

3 "Et luminaribus caeli stultam abstinentiam devoventes: siquidem in honorem solis ac lunae prima et secunda sabbati jejunare delegerunt, uno perversitatis suae opere bis impii, bis profani, qui jejunium suum et ad siderum cultum, et ad resurrectionis Dominae instituire contemptum" (De quadragesima sermo IV, 2. tomoa, 112. orrialdea)

Ortzeko izarrei ganorabako baraua eskaintzen diete: eguzki-ilargien omenetan igandez eta astelehenez barau-eguna egiten dute; horra gaiztakaeria baten bidez bi aldiz sinesgabe eta elizarekiko hausle, beren baraua izarrek gurtzeko eta Jaungoikoaren berpiztea ezesteko antolatua bait dute.

4 "Habet etenim multos ex eis quos tenacius obligavit, aptos artibus suis, quorum ad alios decipiendos et ingenis utatur et linguis. Per istos remedia aegritudinum, indicia futurorum, placationes daemonum, et depulsiones promittuntur umbrarum. Addunt se et illi qui totam humanae vitae conditionem de stellarum pendere effectibus mentiuntur, et quod est aut divinae voluntatis, aut nostrae, indeclinabilem dicunt esse fatorum. Quae tamen, ut cumulatius noceant, spondent posse mutari, si illis quae adversantur sideribus supplicetur. Unde commentum impium sua ratione destruitur, quia si praedicta non permanent, non sunt fata metuenda; si permanent non sunt astra veneranda. (In nativitate Domini Sermo VII; 1. tomoa, 156. orrialdea)

Zeharo menperaturik dituenen artean asko eta asko ditu bere antzez jantziak, eta horien asmazio eta azalpenez baliatzen da beste batzu engainatzeko. Holakoek eritasunak sendatu, etorkizuna asmatu, debruak aspiratu eta izpirituak uxatu egingo dituztela agintzen dute. Eta besteak, giza-bizitza guztia izarren eraginari lotua dela diotenak, gezurtiak halakoak, eta Jaungoikoaren borondateari edo geureari dagokiona patu itzuri ezinezkoan ezartzen dutenak. Eta gero, ziria ondo sartzeko, esango dizue gauzak aldatu litezkeela, kontra daukazun izarrei eskariak eginaz gero. Asmakizun gaiztoa, berez ezertuten dena: iragarritakoa betetzen ez bada, ez da go zertan beldurtu patuagatik; aurrez esandakoa al-gaitza bada, agur izarren gurtza guztia.

San Agustin-ek "De Civitate Dei"-ko pasarte batean (orain ahazturik dudan idaztune batean) hauxe dio gutxi gorabehera horoskopoei buruz: Nola sine-tsi izarren delako eragin hori? Horoskopok dioa egia hutsa bada, bizkiak jaiotzen direnean, nondik nora gerogarrenean bata hau eta hau eta bestea guztiz bestelakoa?

- Aurreko sermoian esandako guztiaz gainera, badu beste azalpentxo laburrago bat gai honi buruz; jakituri u sain gitxiagokoa eta kristau-jaileraz edo debozioz a dimenetik gabe bihotz-bihotzetik eliztarrei jaulkia:

5 "Revertimini ad Dominum intelligentes mirabilia quae in nobis dignatus est operari, et liberationem nostram, non, sicut opinantur impii, stellarum effectibus, sed ineffabili omnipotentis Dei misericordiae deputantes, qui corda furentium barbarorum mitigare dignatus est, ad tanti vos beneficii memoriam toto fidei vigore conferte."

(In Octavis Apostolorum Petri et Pauli; De neglecta solemnitate; 4. tomoa, 70. orrialdea)

Bihur zaitzeze Jaungoikoagana eta gogoemazue gure sal bamera eta gure baitan egin gogo izan dituen harri-garriak ez izarren eraginez, hala uste bait dute sin esgabek, baizik eta Jaungoiko ahalguztidunaren ezin esan halako urrikalmenez burutu dituela; berak bigundu bait zituen barbaro suminduen bihotzak. Jar ezazue mesede handi horren oroitzapenean zuen fede kemen tsu osoa.

6 "Pudet dicere, sed necesse est non tacere: plus impenditur daemoneis quam apostolis, et majorem obtinent frequentiam insanae spectacula quam beata martyria. Quis hanc urbem reformavit salutis? quis a captivitate eruit? quis a caede defendit? Ludus Circensium, an cura sanctorum? quorum utique precibus divinae censurae flexa sententia est, ut qui merebamur iram servaremur ad veniam.

(In Octavis Apostolorum Petri et Pauli; De neglecta solemnitate; 4. tomoa, 68. orrialdea)

Lotsa naiz esaten, baina ezin isilik egon: gehiago egiten da deabruengatik Apóstoluengatik baino. Eta jende gehiago biltzen dute ikuskari erdipurdi koek martirien hobitegiek baino. Nork ekarri du, bada, hiri hau osasunera? Nork atera du morrontzatik? Hilketatik nork babestu du? Zirku-jolasek ala santuen ardurak? Horietxen erreguz aldatu da jainkozko epala, haserre-zigorra merezi genuenok bar kakizun egiterainokoa.

- Hor martyria berbak martirien hobiak eta bertan egindako otoi-lekuak esan nahi ditu.
- Zirkuetan jolas badaezpadakoak eta ohikera idola-trikoak ere baziren. Hortik Eliz-gurasoen kezka.




Paulo apostolu-martiriari eskainitako marmolezko idazkia, bere altaraan, IV. gizaldian bere hilobigainean eraikitakoan (La Tumba de San Pedro y las Catacumbas Romanas; B.A.C. MCMLIV; Madrid)

Erromako Zirku Nagusia
Murcia aranko sakon-
unean eraikia, Aveni-
no eta Palatino-ren ar-
teko zelaietan. Antxina
tekorik ospetsuena.
Eraikuntza-eratik han
diene Zesar-ek bultsa-
tu zuen.

(Mack-Wegner, "ROMA"; ed.
Labor, 1960)

Duas tantum res anxius optat,
panem et circoenses (Juvenalis)
Ogia eta zirku-jolasak, bi ho-
riek izan ezik besterik ez du
irrikatzen (herriak)



Omnes hae versiones, tum graecorum tum latinorum scrip-
torum, quibus EXCERPTA nomen imposui, diversis auctori-
bus atque generibus sunt confectae. His tamen nonnumquam
unius auctoris operibus confecti hujuscemodi libelli
miscentur, ut aiunt, monographici. Gai bakarrek oak, si vas
conum lingua uti malis. Sed non numeris novis designati.
Ad hos notandos verbo inter nos iam satis antiquo utar:
Gehigarri, id est, instar appendicis.